

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

"Etxe Zaporea" etxeko janaria emateko aplikazio bat da, erretiratuek prestatutako plateriez gozatu nahi duten pertsonak konektatzen dituena. Plataformak hainbat menu eskainiko ditu, eskualdeko plater tipikoetatik hasi eta barazkijale, begano eta glutenik gabeko aukeretaraino, osagai fresko eta lokalak erabiliz. Bezeroek zerbitzuaren erregularotasuna aukeratu ahal izango dute (egunerokoa, astekoa edo taldeentzat), eta eskaerak app-aren bidez egin ahal izango dituzte; bertan, janaria eta entrega-esperientzia ere baloratu ahal izango dituzte.

Negozioa janaria prestatzeko denborarik edo trebetasunik ez duten pertsonei zuzenduta dago batez ere, hala nola gazteei, bakarrik bizi diren pertsonei, edo arrazoi fisikoengatik kozinatu ezin dutenei, hala nola adinekoei. Negozio-eredua dibertsifikatua da, hainbat talderi erreparatuta: errezeta tradizionalak bilatzen dituztenetatik hasi eta aukera osasungarri eta azkarra behar dutenetaraino. Aplikazioak interfaze sinple baten bidez eskaerak egiteko aukera emango du. Bertan, asteko menuak erosteko moduan egongo dira, tupper edo plater tradizionaletan entregatzeko aukerekin.

Proiektu hau aurrera eramateko, hainbat baliabide behar dira, hala nola produktu freskoak eta lokalak, sukaldeko erremintak, banaketa-ibilgailuak eta aplikazio mugikor baten garapena. Erretiratuek egunean hiru ordu inguru lan egingo dute, eta konpentsazio bat jasoko dute beren zerbitzuengatik; banatzaileek, berriz, furgonetetan entregak egiteko kontratatuek, eskaerak garaiz eta egoera onean iristen direla ziurtatuko dute. Gainera, marketin-estrategiak inplementatuko dira sare sozialetan eta sustapen berezietan bezero berriak erakartzeko, zerbitzu pertsonalizatua eta komunitatetik gertu dagoena bermatuz.